

Mondragon Unibertsitatea eta FAGOR ARRASATE EUROSTARS Europako proiektuan parte hartzen ari dira

2012/10/19

Gaur egun, ibilgailuen xasisak nagusiki euren artean soldatutako pieza estanpatuekin ekoizten dira. Honek matrizeria kostu oso altuak eragiten ditu eta gainera, prozesuaren malgutasuna oso mugatua da (erreminta zurruna denez ez dira aldaketa geometrikoak onartzen eta ezin da geometria piezaz pieza aldatu).

Oso eraginkorra dela frogatu den aukera bat, bai energetikoki eta bai ekonomikoki, profilaketa malgua edo 3D profilaketa da. Teknologia hau arrakastaz aplikatu da eraikuntzaren sektorean, baina, automobilgintza-sektorerera pasatzerakoan akatsak egon dira eta eskaintzen duen zehaztasun maila ez da nahikoa, nagusiki sektore honetan erabiltzen diren trantsizio geometriko zorrotzengatik. Hala ere, sektorearen eskakizunak beteko dituen makina baten diseinuak gaur egun auto eta kamioien xasisak egiteko prozeduran sekulako aldaketa ekarriko luke, kostua eta ingurumen eragina gutxituz, energia kontsumoa txikiagoa izango litzatekeelako eta familia bereko profilak erreminta berdinarekin ekoiztuko liratekeelako.

Proiektuan parte hartzen ari diren enpresak dira ORTIC, profilatzeko 3Dko hainbat makina garatu dituen eraikuntzaren sektorerako, eta FAGOR ARRASATE, bereziki dimentsio handiko estanpazio prentsak, siderurgiaren sektorerako makinak eta makina bereziak fabrikatzen dituen estatuko enpresarik handienetakoa, horien artean sartzen delarik profilaketa proiektu hau. Partzuergoa osatuz daude DALARNA UNIVERSITY, ORTICekin diharduen suediar unibertsitatea, eta MONDRAGON UNIBERTSITATEko GOI ESKOLA POLITEKNIKOA, FAGOR ARRASATEren aliatua. Unibertsitate horietan lanik zientifikoena egingo da.

Proiektu hau proiektu estrategiko bat da bi erakundeentzat, 3D profilaketa lerroa erabiltzeko lankidetzaren marko bat sinatu baitute. ORTIC aditua da mota honetako garapenetan eta FAGOR aditua da profiletarako aurre eta geroko operazioetarako periferikoak ekoizten eta makinaria guztia industria inguruetan integratzen, bereziki mundu mailako automobilgintza industriari. Nabarmenezkoa da, proiektuaren amaieran azken belaunaldiko profilaketa malguko lerro berri bat aurkeztuko dela.



Kolaboratzaileen bisita Faluneko kobrezko meategiari